






III. atala:

Getxoko Udalari begira





3.1 kapitulua



EMAKUMEEK ERABAKITZEKO
UDAL INSTANTZIETARA DUTEN
SARBIDEA



3.1.1. GOBERNU ORGANOA

ORDEZKARITZA POLITIKOA ETA ALKATETZA

Atal hau hasteko, alderdi politikoen sexuaren arabeko osaera analizatuko dugu. Datuek erakusten dutenez, 2010ean ordezkari politikoak ez zuten biztanleria ordezkatzeko sexuari dagokionez, ez zen paritarioa; azken bi legegintzaldietan, berriz, alderdi politiko guztietan emakumeen eta gizonen ordezkari % 40 eta % 60 bitartekoa izan da hurrenez hurren, salbu eta Alternatiba EBn 2007an, ordezkari bakarra baitzen gizona, eta PSE-PSOEn 2011n, 2 gizon baitziren ordezkari.

3.1.1. taula. Getxoko Udalan azken hiru legegintzaldietan egon den ordezkari politikoaren (geuk egina, 2010eko emakumeen eta gizonen egoeraren diagnostikoan eta Getxoko Udaleko udalbatzaren bilkura berezien 2011ko eta 2015eko aktetan oinarrituta)

	2007-2011		2011-2015		2015-2019	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
EAJ-PNV	% 30	% 70	% 40	% 60	% 44	% 56
PP	% 30	% 70	% 44	% 56	% 40	% 60
PSE-PSOE	% 25	% 75	-	% 100	% 50	% 50
Bildu	-	-	% 50	% 50	% 50	% 50
GUK GETXO	-	-	-	-	% 50	% 50
Alternatiba	-	% 100	-	-	-	-

Karguei eta haien organoen osakerari dagokienez, datu hauek bildu dira:

- Udalaren ordezkari gorenak, alkatetza, gizon batek du. Hori 1852tik gertatu da, oraingoaren aurretik etorri diren Getxoko 44 alkateekin.
- Alkatea ez dagoenean, gaixorik dagoenean edo eskuordetzen duenean, bai 2010ean bai 2011-2015eko legegintzaldian, funtzio horretarako izendatu diren lau pertsonen artean bi emakume alkateorde egon dira. Hala ere, azken legegintzaldian, emakumeen ordezkari % 25era jaitsi da.
- Erreferentziako hiru aldietan, lehen alkateordea emakumea izan da.

3.1.2. taula. Getxoko Udalan azken hiru legegintzaldietan egon diren alkateordeak (geuk egina, 2010eko emakumeen eta gizonen egoeraren diagnostikoan eta Getxoko Udaleko udalbatzaren bilkura berezien 2011ko eta 2015eko aktetan oinarrituta)

	Sexua, 2007-2011	Sexua, 2011-2015	Sexua, 2015-2019
Alkatea	G	G	G
Lehen alkateordea	E	E	E
Bigarren alkateordea	G	G	G
Hirugarren alkateordea	E	E	G
Laugarren alkateordea	G	G	G






3.1.1. GOBERNU ORGANOAK

GOBERNU BATZARRA, BOZERAMAILEEN BATZARRA ETA UDALBATZA

Gobernu Batzarreko sexu ordezkaritzari dagokionez, ikusi dugu erreferentziako hiru aldietan gizon bat izan dela batzarburu. Era berean, emakumeak gutxi gorabehera kide guztien % 33 izan dira.


3.1.1 grafikoa. Getxoko Udaleko gobernu batzarraren osaera, sexuka
Azken hiru legegintzaldien konparazioa (geuk egina, 2010eko emakumeen eta gizonen egoeraren diagnostikoan eta Getxoko Udaleko udalbatzaren bilkura berezien 2011ko eta 2015eko aktetan oinarrituta)




Udalbatzaren sexuaren araberako osaera, 2015-2019ko legegintzaldian, berdintasunaren euskal legeak ezarritako parametroen barruan dago, % 56 gizonak eta % 44 emakumeak dira eta.

Bestalde, azken bi legegintzaldietako bozeramaileen batzarraren sexuaren araberako osaerak erkatuz gero, igarriko dugu 2011n emakume bozeramaileen ordezkaritza % 50era heldu zela eta 2015ean % 17ra jaitsi zela. Jaitsiera horrekin batera, bozeramaileen ordezkoi gisa agertzen diren emakumeen ehunekoa igo egin da; izan ere, 2011n % 14 ziren eta 2015ean, berriz, % 55.

3.1.2 grafikoa. Getxoko Udaleko bozeramaileen batzarraren osaera, sexuka.
Azken bi legegintzaldien konparazioa (geuk egina, Getxoko Udaleko udalbatzaren bilkura berezien 2011ko eta 2015eko aktetan oinarrituta)



3.1.3 grafikoa. Getxoko Udaleko udalbatzaren osaera, sexuka. 2015 (geuk egina, Getxoko Udalaren udal webgunean oinarrituta)






3.1.1. GOBERNU ORGANOAK

ZINEGOTZIGOAK ETA INFORMAZIO BATZORDEAK


Zinegotzien sexuaren araberako eraketa dela eta, hobekuntza antzematen da azken bi legegintzaldietako datuak erkatzen baditugu; izan ere, aurreko legegintzaldian emakumeak zinegotzi guztien % 42 ziren eta, gaur egun, % 50.

3.1.4. grafikoa. Getxoko Udaleko Zinegotzigoen eraketa, sexuaren arabera. Azken bi legegintzaldietako konparatiba. (Geuk egina Getxoko Udalaren Osoko Bilkurako 2011ko eta 2015eko aparteko bileren aktak oinarri hartuta).



Udalaren **informazio-batzordeak** direla eta, adierazi beharra dago Getxoko Udalak gaur egun lau informazio-batzorde dituela: i) Presidentetza eta Gizarte Zerbitzuen Informazio Batzordea, ii) Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ingurumen eta Ondasun eta Etxebizitzaren Informazio Batzordea, iii) Uholdeen Informazio Batzorde Berezia eta iv) Ogasun, Kontu, Sustapen Ekonomiko, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskara Informazio Batzordea.

3.1.5. grafikoa. 2015-2019 legegintzaldirako Getxoko Udaleko informazio-batzordeen eraketa, sexuaren arabera. (Geuk egina, Getxoko Udalaren Osoko Bilkuraren 2015eko aparteko bilerako aktan oinarrituta).



Azken legegintzaldiko datuek adierazten dute aipatutako lau batzordeetatik, bakarrean dagoela emakume bat titular gisa (Presidentetza eta Gizarte Zerbitzuen Informazio Batzordea). Hala ere, lau informazio-batzordeetarako ordezko pertsonen artean, bi sexuen ordezkaritza orekatua da.






3.1.1. GOBERNU ORGANOAK

UDAL ARLO ETA ZERBITZUETAKO PERTSONA ARDURADUNAK

Udal-arlo eta -zerbitzuetako arduradunen sexuaren arabera eraketa dela eta, datuek hobekuntza nabarmena erakusten dute; izan ere, aurreko legegintzaldian emakumeak arduradunen % 33 ziren, eta, gaur egun, % 64.

3.1.6. grafikoa. Getxoko Udaleko arlo eta zerbitzuetako arduradunen eraketa, sexuaren arabera. 2010eko eta 2015eko konparatiba (Geuk egina 2010eko emakume eta gizonen egoeraren Diagnostikoa eta Getxoko Udalaren Osoko Bilkurako 2015eko aparteko bileraren akta oinarri hartuta).



Hurrengo taulan, aurtengo legegintzaldian (2016-2019) emakume eta gizonen erantzukizunaren pean dauden udal-arlo eta -zerbitzuak zehazten dira. Erantzukizuneko 14 postuetatik, emakumeek betetzen dituzte gehienak (9). Hala ere, begiratu behar dugu arlo horiek zein eremuri dagozkion eta baten eta besteen erakundeak zein diren. Emakumeen esku daude tradizioan ugalketa-rolari eta elkartasunari lotutako eremuak, besteak beste, Hezkuntza, Garapenerako Lankidetzak, Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasuna. Gizonezkoen erantzukizunaren mende dauden arlo eta erakundeei begiratzuz gero, lan-eremuak Ogasuna, Hirigintza, Kirola eta Kontratazioa direla ikusiko dugu. Genero-desberdintasuna erantzukizuneko eremuen banaketan oraindik oso ohikoa da euskal udalerrri gehienetan.

3.1.3. taula. Erantzukizunaren banaketa, udal-zerbitzu eta -arloka, sexuaren arabera. 2016-2019 legegintzaldia. (Geuk egina, Getxoko Udalaren Osoko Bilkuraren 2015eko aparteko bilerako aktan oinarrituta).

Zk	Arduraduna emakumea	Arduraduna gizona
1	Presidentetza Arloa (Zerbitzu Orokorrak, Udaltzaingoa, Babes Zibila, Bide Publikoa eta Ingurumena).	Hirigintza, Obrak, Zerbitzuak, Ondarea eta Etxebizitza Arloa
2	Gizarte Zerbitzuen eta Esku Hartze Komunitarioaren Arloa	Kultura, Euskara eta Gazteria Arloa
3	Komunikazio, Herritarrentzako Arreta, Gardentasun eta Herritarren Partaidetza Arloa	Ogasun, Sustapen Ekonomiko eta Giza Baliabideen Arloa
4	Ogasun, Sustapen Ekonomiko eta Giza Baliabideen Arloari atxikitako Kalitate Zerbitzua	Kontratazio, Informazio Sistema eta Kirol Arloa
5	Gizarte Zerbitzuen eta Esku Hartze Komunitarioaren Arloari atxikitako Irakaskuntza Zerbitzua	Ogasun Arloari atxikitako Turismo Zerbitzua
6	Gizarte Zerbitzuen eta Esku Hartze Komunitarioaren Arloari atxikitako Garapenerako Lankidetzak Zerbitzua	
7	Sustapen Ekonomikoa eta Giza Baliabideak	
8	Kultura, Euskara eta Gazteria Arloari atxikitako Gazteria Zerbitzua	
9	Gizarte Zerbitzuen eta Esku Hartze Komunitarioaren Arloari atxikitako Berdintasun Zerbitzua	






3.1.1. GOBERNU ORGANOAK

ERAKUNDE AUTONOMOAK


Azkenik, gogorazi nahi dugu Getxoko Udalak lau erakunde autonomo dituela: Getxo Kirolak, Kultura Gela, Andres Isasi Musika Eskola eta Jesusen Bihotzaren Udal Egoitza. Zerbitzu horien presidentetzen sexuaren arabera eraketak erakusten du 2010ean eta 2015ean horietako baten presidentea baino ez dela izan emakumea (Jesusen Bihotzaren Udal Egoitza).

3.1.7. grafikoa: Getxoko Udaleko udal-zerbitzu autonomoetako presidentetzen eraketa, sexuaren arabera. 2010, 2011 eta 2015eko konparatiba. (Geuk egina, 2010eko emakume eta gizonen egoeraren Diagnostikoa eta Getxoko Udalaren Osoko Bilkuraren 2011ko eta 2015eko aparteko bileren aktak oinarri hartuta).




+

3.2. kapitulua



+



UDALEKO LANGILEAK



3.2.1. PLANTILLAREN ERAKETA


BANAKETA SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA

Jarraian, udal-plantillaren eraketa zein den aztertuko dugu, sexuaren arabera banatuta. Horretarako, Udaleko langileen arloak 2015eko maiatzaren 2an emandako datuak hartu dira kontuan.


Emandako datuen arabera, 2015eko maiatzean, Udalaren plantilla gehiena gizonak eratzten zuten; izan ere, langileen % 62 ziren, eta emakumeak % 38. Zenbaki absolutuetan, plantilla, guztira, 467 pertsonak osatzen zuten; horietatik, 178 emakumeak ziren eta 289 gizonak. Datu horiek eta 2010ekoak erkatzen baditugu, ikusiko dugu emakume eta gizonen proportzioa antzera mantendu dela, baina behera egin duela ehuneko bat langileen ehunekoak, 2010aren aldean.

Udaleko langileen sexuaren eta adinaren arabeko banaketa dela eta, hurrengo grafikoak erakusten du gizonen proportzioa handiagoa dela adin-tarte guztietan. Era berean, garrantzitsua da nabarmentzea adinak aurrera egin ahala, gizonen ordezkaritza gero eta nabarmenagoa dela. 50 urtera arte emakume eta gizonen arteko proportzioa antzera mantentzen da, % 44 inguru emakumeen kasuan eta % 56 inguru gizonen kasuan, baina, 51 urtetik aurrera, gizonak, batez beste, kontratatutako langileen % 67 dira.

3.2.1. grafikoa. Udaleko langileen eraketa, sexuaren arabera. 2010eko eta 2015eko maiatzeko konparatiba. (Geuk egina, Getxoko Udalaren datuetan oinarrituta).



3.2.2. grafikoa. Udaleko langileen eraketa, sexuaren eta adinaren arabera. 2015eko maiatza. (Geuk egina, Getxoko Udalaren datuetan oinarrituta).






3.2.1. PLANTILLAREN ERAKETA

ERAKETA ARAUBIDE JURIDIKOAREN ETA SEXUAREN ARABERA


Plantilla araubide juridikoaren arabera nola banatzen den kontuan hartzen badugu, ikusiko dugu gehienak karrerako funtzionarioztaren araubidearen pean daudela (309) eta bitarteko funtzionarioztaren pean (94).

3.2.3. grafikoa. Udaleko langileen eraketa, araubide juridikoaren arabera. 2015eko maiatza. (Geuk egina, Getxoko Udalaren datuetan oinarrituta).



Analisian sakonduz gero (3.2.4. grafikoa), ikusiko dugu **plantillaren banaketak, sexuaren eta araubide juridikoaren arabera**, nabarmendu beharreko zenbait joera dituela. Alde batetik, gizonak neurri handiagoan daude karrerako funtzionarioen eta bitarteko funtzionarioen artean banatuta, egonkortasun-kota handiagoak ezartzen dituzten kontratu-araubideetan. Bestetik, emakumeak neurri handiagoan banatzen dira aldi baterako langileen, konfiantzazkoen, praktiketako funtzionarioen eta aldi baterako lan-kontratudun langileen artean, kontuan hartuta modalitate horiek ezegonkorragoak direla.

3.2.4. grafikoa. Udaleko langileen eraketa, araubide juridikoaren eta sexuaren arabera. 2015eko maiatza. (Geuk egina, Getxoko Udalaren datuetan oinarrituta).



Kontratu-harremana dela eta, hurrengo orrian Udaleko lan-kontratupeko langileen datuak zehazten dira, karrerako funtzionarioena izan ezik. Datu horiek adierazten dute, lehenengo eta behin, ordezkartza orekatua dagoela bi sexuetan Udalar EPE bitarteko funtzionarioaren kalitatean atxikitako pertsonen artean.

Hala ere, emakumeek ordezkartza handiagoa dute kontratatuta mugagabe ez-finkoa duten lanpostuetan (% 75) eta Obra eta Zerbitzu kontratua dutenen artean, alegia, lan-kontratu ezegonkorragoak dituztenen artean. Gainera, ordezkartza, zereginen metaketaren edo programen metaketaren bidez bitarteko funtzionarioaren lanpostua hartu duten pertsonetan gizonen ordezkartzak zabal gaintzen du emakumeena.






3.2.1. PLANTILLAREN ERAKETA

ERAKETA KONTRATU HARREMANAREN ETA UDAL ARLOAREN ARABERA

3.2.5. grafikoa. Udaleko langileen eraketa, kontratu-harremanaren eta sexuaren arabera. 2015eko maiatza. (Geuk egina, Getxoko Udalaren datuetan oinarrituta).



Langileak udal-sailen arabera nola banatzen diren begiratzen badugu, Udalaren langileen arloak emandako sailkapenari jarraikiz, honako hau ikusiko dugu:

Gizonen ordezkariak esanguratsua da tradizioan oso maskulinituta egon diren sailetan: Segurtasuna (% 88,1) eta Zerbitzu Teknikoak (% 76,8).

Bestalde, emakumeen kasuan, ordezkariak nagusia dago honako hauetan: Gizarte Zerbitzuak (% 74,4), tradizioan oso feminizatua; Ekonomia eta Ogasuna, % 78rekin eta Eremu Juridiko-Administratiboa, % 83,3rekin. Jesusen Bihotzaren Udal Egoitzan, udaleko langileen zerrendan ageri den lanpostu bakarra emakume batek betetzen du.

3.2.1. grafikoa. Udaleko langileen eraketa, sexuaren eta udal-arloaren arabera. 2015eko maiatza. (Geuk egina, Getxoko Udalaren datuetan oinarrituta).

Udal-arloa	Emakumeak	Gizonak	Guztira	% E	% G
Alkatetza	14	13	27	% 51,9	% 48,1
Ekonomia eta Ogasun Arloa	46	13	59	% 78,0	% 22,0
Gizarte Zerbitzuen Arloa	29	10	39	% 74,4	% 25,6
Arlo Juridiko Administratiboa	20	4	24	% 83,3	% 16,7
Langile, Antolaketa eta Informatika Arloa	12	25	37	% 32,4	% 67,6
Zerbitzu Teknikoen Arloa	26	86	112	% 23,2	% 76,8
Komunikazio Arloa	13	12	25	% 52,0	% 48,0
Segurtasun Arloa	17	126	143	% 11,9	% 88,1
Udal Egoitza	1	0	1	% 100,0	% 0,0
Guztira	178	289	467	% 38,1	% 61,9






3.2.1. PLANTILLAREN ERAKETA

ERANTZUKIZUNEN POSTUEN BANAKETA, SEXUAREN ARABERA

Erantzukizuneko postuak direla eta, honako taula honek 2015eko maiatzean emakume eta gizonak betetzen dituzten postuak erakusten ditu. Identifikatutako erantzukizuneko 35 postuetatik, emakumeek 13 betetzen dituzte eta gizonak 22.

Era berean, nabarmendu behar da 2010ean emakumeek erantzukizuneko postu guztien % 29 betetzen zutela eta, 2015ean, ehuneko horrek gora egin duela eta dagoeneko % 37 betetzen dutela.

3.2.6. grafikoa. 2010eko eta 2015eko erantzukizun-postuen konparatiba, sexuaren arabera (Geuk egina, Getxoko Udalaren datuetan oinarrituta).



3.2.2. Udaleko erantzukizuneko postuen eraketa, sexuaren eta udal-arloen arabera. 2015eko maiatza. (Geuk egina, Getxoko Udalaren datuetan oinarrituta).

	Erantzukizun-postua	E	G
Alkatetza	Gazteria-teknikaria	0	1
	Hizkuntz Normalizaziorako teknikaria	0	2
Arlo Juridiko Administratiboa	Barne-araubideko arduraduna	1	0
	Atezainen arduraduna	0	1
Ekonomia eta Ogasun Arloa	Kontu-hartzaile orokorra	1	0
	Aholkularitza juridikoko arduraduna	1	0
	AOT Aholkularitza juridikoa	1	0
	Diruzaina	1	0
Langile, Antolaketa eta Informatika Arloa	Ondare, kontratazio eta erosketen arduraduna	1	0
	Informatikako arduraduna	0	1
	Proiektu informatikoen arduraduna	0	2
Zerbitzu Teknikoen Arloa	Unitateko arduraduna	1	0
	Azpiegitura eta zerbitzuen arduraduna	0	1
	AOT Zerbitzuen azpiarloa	1	0
Komunikazio Arloa	Informatiboen arduraduna	0	1
	Komunikazio arloko arduraduna	0	1
	Getxo Irratiko arduradun teknikoa	0	1
Segurtasun Arloa	Zerbitziburua	0	7
	Ataleko burua	1	0
	Eragiketen burua	0	1
Gizarte Zerbitzuen Arloa	Gizarte-zerbitzuen arduraduna	0	2
	Berdintasun-agentea	1	0
	Immigrazioko teknikaria	0	1
	Programen koordinatzailea	2	0
GUZTIRA		13	22





3.2.1. PLANTILLAREN ERAKETA

SOLDATA TALDEAK, SEXUAREN ARABERA

Analisiarekin jarraitzeko, soldata-taldea bezalako aldagaiak kontuan hartuz gero, hau da dugun errealitatea:

- Udalean lan egiten duten gizonen % 65 eta emakumeen % 54 C1 eta C2 soldata-taldeetan daude.
- Goragoko mailako taldeei begiratzuz gero (A1 eta A2), emakumeen presentzia handiagoa da (% 32,8) gizonekoena baino (% 13,9).
- Beheragoko AP taldeari begiratzuz gero, gizonek dute presentzia handiagoa emakumeek baino.

3.2.3. Getxoko Udaleko langileak, soldata-taldeen arabera. 2015eko maiatza. (Geuk egina, Getxoko Udalaren datuetan oinarrituta).

TALDEA	EMAKUMEA K		GIZONAK		GUZTIRA	
	Kop	%	Kop.	%	Kop.	%
A1	31	% 17,2	29	% 10,1	60	% 12,9
A1/A2	0	% 0,0	2	% 0,7	2	% 0,4
A2	28	% 15,6	11	% 3,8	39	% 8,4
C1	51	% 28,3	139	% 48,6	190	% 40,8
C2	46	% 25,6	47	% 16,4	93	% 20,0
AP	14	% 7,8	51	% 17,8	65	% 13,9
Talderik gabe (izendapen askekoa)	10	% 5,6	7	% 2,4	17	% 3,6

Datu horiek 2010ean batutako datuekin erkatzen baditugu, honako hau ikusiko dugu:

- 2010aren aldean, gizonen presentzia handiagoa dute C1 taldean, eta, neurri txikiagoan bada ere, A1 taldean. Halaber ikusten da presentzia gutxiago dutela C2 eta AP taldeetan.
- Emakumeek presentzia handiagoa dute C1 taldean eta, aldi berean, horien presentziak behera egin du beheragoko beste 2 taldeetan (C2 eta AP).

Horrek esan nahi du 2010ean emakumeen artean soldata-arrakala handiagoa zela, presentzia handiagoa zutelako goragoko eta beheragoko mailetan, eta gizonak, batez ere, tarteko soldata-tartean zeudela, eta, 2015ean, soldata-arrakalak behera egin duela, Udalean lanean dauden emakume eta gizon gehienak tarteko taldean daudelako.

3.2.4. Getxoko Udaleko langileak, soldata-taldeen arabera. 2010eko eta 2015eko maiatzeko konparatiba. (Geuk egina, Getxoko Udalaren datuetan oinarrituta).

	EMAKUMEA		GIZONAK	
	2010	2015	2010	2015
A1	% 18,7	% 17,2	% 8,9	% 10,1
A1/A2	% 0,0	% 0,0	% 0,6	% 0,7
A2	% 15,8	% 15,6	% 4,2	% 3,8
C1	% 13,8	% 28,3	% 39,3	% 48,6
C2	% 37,4	% 25,6	% 18,9	% 16,4
AP	% 12,3	% 7,8	% 25,9	% 17,8
Talderik gabe (izendapen askekoa)	% 2,0	% 5,6	% 2,2	% 2,4



3.2.1. PLANTILLAREN ERAKETA

SOLDATA MAILAK, SEXUAREN ARABERA

3.2.5. Getxoko Udaleko langileak, soldata-taldean arabera. 2015eko maiatza. (Geuk egina, Getxoko Udalaren datuetan oinarrituta).

MAILAK	EMAKUMEA		GIZONAK		GUZTIRA	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
0	12	% 6,6	7	% 2,5	19	% 4,2
8	6	% 3,3	45	% 16,4	51	% 17,4
9	6	% 3,3	7	% 2,5	13	% 2,7
11	39	% 21,4	37	% 13,5	76	% 23,5
13	0	% 0,0	4	% 1,5	4	% 1,1
14	50	% 27,5	126	% 45,8	176	% 26,9
15	0	% 0,0	5	% 1,8	5	% 1,1
17	26	% 14,3	8	% 2,9	34	% 7,4
18	0	% 0,0	1	% 0,4	1	% 0,2
19	1	% 0,5	2	% 0,7	3	% 0,6
20	7	% 3,8	5	% 1,8	12	% 3,1
21	25	% 13,7	22	% 8,0	47	% 9,9
22	1	% 0,5	1	% 0,4	2	% 0,4
24	6	% 3,3	3	% 1,1	9	% 2,1
26	1	% 0,5	1	% 0,4	2	% 0,4
30	2	% 1,1	1	% 0,4	3	% 0,6

Soldata-mailak direla eta, honako hau ikusten da:

- Emakume gehien dauden bi soldata-mailak 14 eta 11 dira (ordena horretan).
- Gizonen artean, kontzentrazio gehien 14 eta 8 mailetan daude (ordena horretan, halaber).
- Soldata-mailan gora goazen neurrian, ikusten dugu 10 gizonetatik 8, gutxi gorabehera, 8-14 mailetan daudela. Emakumeen artean, tarte horretan 10 emakumetatik 5,5 daude.
- 3 soldata-maila altuenetan (24, 26 eta 30), emakumeek presentzia handiagoa dute gizonen baino (% 4,6 % 1,9ren aldean).





3.2.2 ESZEDENTZIAK

ESZEDENTZIAK FAMILIARTEKOAK ZAITZEKO

Eszedentzien inguruan dauden datuek erakusten dute **sektore publikoko prestazioaren eszedentziak** direla eta, 3 urteko aldian (2014tik 2016ra), 3 pertsonak baino ez dutela eskubide hori baliatu (2 emakume eta 1 gizon).

Familiartekoak zaintzeko eszedentziak direla eta, honako grafiko honek erakusten du azken hiru urteotan, eskubide hori baliatu duten 23 pertsonetatik, 20 emakumeak izan direla.

Datu horiek egiaztatzen dute emakumeak arduratzen direla, neurri handiagoan, mendeko pertsonen zaintzaz, eta beraiek hartzen dituztela, normalean, kontziliazio-neurriak. Ikusteko dago familiartekoak zaintzeko eszedentzia hartu duen gizon-kopurua etorkizunean bizkortzen doan eta, horrela, normalizatu egiten den bikoteetan erantzukidetasun-maila handiagoa.

3.2.7. grafikoa **Eszedentzia familia-zaintzeko**. 2014, 2015 eta 2016ko konparatiba. (Geuk egina, Getxoko Udalaren datuetan oinarrituta).

